

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO NEURRIEN V. TXOSTENA (2024)

Sektore publikoak bultzatutako sustapen-ekintza:
EAEko Administrazio Orokorra eta Foru
Administrazioak

2024

Sustapen-ekintza hobetzeko orientazioak eta deskribapena



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

3seuskadi

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 19. artikuluaaren arabera, gizarte-politiken inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak urtero prestatuko du sustapen-neurrien gaineko txostena. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek sustapen-ekintzen gainekoa izango da txostena, publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizatua jasoko du, baita sustapen-ekintzak hobetzeko orientabideak ere.

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiazea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

Sustapen-neurrien hirugarren txostenaren hurbilpena.....	1
Aurkezpena	2
Sustapen-neurrien txostenerako sarrera	2
Sustapen-neurrien txostena egiteko lehenengo zikloa (2020-2023).....	2
Ziklo berrirako proposamen metodologiko berria (2024-2027)	3
Txostenaren atalak.....	4
Kokatzea.....	5
Sustapen-neurriaren definizioa.....	5
Sustapen-neurrien sailkapena	5
Metodologia.....	6
Eragileak eta neurriak identifikatzeko metodologia	6
Sustapen-neurrien azterketaren dimentsioak	7
Orientabideak eta hobetzeko proposamenak identifikatzeko metodologia	10
EAEko foru administrazioak eta administrazio autonomikoak 2023an bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa	12
Erkidegoko eta lurraldeetako sektore publikoko zer eragilek bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?	13
Eragile sustatzaileak, haien jardura sektorearen arabera	13
Eragile sustatzaileak, egoitza sozialaren arabera.....	13
Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?.....	14
Identifikatutako neurriak kategorien arabera	14
Identifikatutako neurriak moten arabera	15
Zer lurraldetan dute eragina?	17
Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan	17

3seuskadi

Nori zuzenduta daude?	17
Sustapen-ekintza hobetzeko orientazioak.....	21
Aurrekariak.....	22
Orientabide estrategikoak	24
1. orientabidea: Eragile askoren arteko elkarlana indartzea sustapen-neurriak bultzatzeko	26
2. orientabidea: Sustapen-ekintzaren gaineko informazio-sistema zehatzagoa eta gardena garatzea	28
3. orientabidea: Erakunde sozialen oinarri sozialaren egituraketa eta aktibazioa sustatzea.....	28
4. orientabidea: EHSSren ekarpen soziala ikusaraztea	28
5. orientabidea: EHSSren jasagarritasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea	28
6. orientabidea: EHSSk bultzatutako berrikuntza soziala sustatzea	29
7. orientabidea: EHSSren eraldaketa digitala bultzatzea	29
Erreferentzia bibliografikoak	31
1. eranskina Orientazioak eta hobetzeko proposamenak identifikatzeko eta lehenesteko mintegiko erakunde parte-hartzaileak	33
2. eranskina Orientazioak eta proposamenak identifikatzeko eta lehenesteko mintegiaren egitura eta programa	35



Sustapen-neurrien hirugarren txostenaren hurbilpena

Aurkezpena


Sustapen-neurrien txostenerako sarrera

Sustapen-neurrien txostena egiteko lehenengo zikloa (2020-2023)

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala (aurrerantzean, EHSS) bultzatzeko eta sustatzeko aurreikusten dituen politiken baitan kokatzen dira EHSSko erakundeak eta sareak sustatzeko ekintzen deskribapena eta etengabeko hobekuntza, eta lege horren arabera antolatu behar dira, bereziki, lege horren IV. kapituluaren arabera. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiak (aurrerantzean, EHSSSE) ere jasotzen ditu politika horrek.

EHSSko sustapen-neurriei buruzko txostena **urtero** egiteko betebeharra Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen (aurrerantzean EHSSL) 19. artikuluan jasotzen da, eta honakoa adierazten du: “txosten hori publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizaturik jasoko du” (2. paragrafoa)¹.

Lehen txostena (2020) martxan jartzeko, EHSSren sustapen-ekintza deskribatzeko, aztertze eta orientatzeko lau urteko zikloa artikulatzeko proposamen metodologikoa egin zen. Proposamen metodologiko horrek hiru txosten mota hartzen zituen barne:



A. **Txosten orokorra**, (2020an egina). Horren helburu nagusia zen sustapen-ekintza guztiak egin aurreko urteari dagozkion deskribapena eta balorazioa eskaintzea eta hobetzeko proposamen eta orientazioak zehaztea.

B. **Txosten monografikoa** (2021ean egina); horren helburua zen sustapen-ekintzarekin lotutako alderdi espezifikoak sakontzea eragile jakin batzuek bultzatutako edo txosten orokorrean identifikatutako erronkekin, hobetzeko proposamenekin eta azterketa kualitatiboekin lotutako sustapen-neurrien inguruko ezagutza areagotzeko. 2021eko txostena Euskadiko enpresa-sektoreak sustatutako sustapen-neurrietan zentratu zen.

C. **Hiru txosten deskribatzaile** (2021ean, 2022an eta 2023an egindakoak), eragileen eta sustapen-neurrien sistematizazioarekin eta aurreko txostenetan jasotako informazioa zabalduz. 2022ko txostena Euskadiko udalek sustatutako neurrietan zentratu zen eta 2023koa, lehen ziklo horretarako aurreikusita zegoen azkena, ikastetxeetan.

Zikloaren diseinuaren helburua hainbat eragile sustatzailek bultzatutako sustapen-neurriak pixkanaka pilatzea zen, haiek sustatutako sustapen-ekintzaren alderaketa konparatiboa egin ahal izateko ondoren. Lehenengo zikloak (2020-2023) emaitza positiboak izan ditu: neurri eta eragile sustatzaile publiko eta pribaturik adierazgarrienak

¹ Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

identifikatzeko eta eragile sustatzaileen artean partekatutako ezagutza- eta gogoeta-espazioak sortzeko aukera eman du. Horrez gain, osatu gabe egon arren, haren neurriaren eta ezaugarrien gaineko irudi egokitua eskaini ahal izateko bezain zabala eta esanguratsua den datuen multzoa lortzeko aukera eman du zikloak. Hala ere, zikloak agerian utzi du eragile sustatzaileen unibertsoaren zabaltasuna eta sustapen-neurri askoren aldakortasuna. Faktore horiek zaildu egiten dute urte batetik besterako neurrien alderaketa zorrotza egitea.

Hori dela eta, sustapen-neurrien txostena egiteko ziklo berriaren kasuan (2024-2027), garrantzia kendu zaio lehen zikloak neurrien metaketan oinarrituta eskaintzen zuen ikuspegi kuantitatiboari, sustapen-ekintzan kontzentratzen den ikuspegi kualitatiboa gehitzeko: ezaugarriak (neurrien banaketa, eragileen pisua, etab.), neurri eta eragile gakoaren identifikazioa, igarri daitezkeen joerak, lankidetzak-aukerak, arreta gutxien jasotzen duten beharrak, eragile sustatzaileen estrategiekin bat datozen ala ez, etab. hori dela eta, zikloaren helburua ez da izango ahalik eta neurri gehien identifikatzea eta metatzea, baizik eta, aurreko zikloan jasotako informazioa erreferentziatzen hartuta, eragileen eta neurri moten dibertsitatea eta lurralde-banaketa kontuan hartzen duen lagin zabala jasotzea, emaitza lausotu dezaketen joerak ekiditeko. Zikloan zehar jasotako lagin horrek aukera emango du sustapen-ekintzaren eboluzioa edo eraldaketa aurreko zikloarekin alderatzeko.

Ziklo berriko proposamen metodologiko berria (2024-2027)


Hori horrela, elaborazio-ziklo bakoitzaren helburua izango da sustapen-ekintzaren deskribapen orokorra lortzea, goian adierazitako elementuak aipatuz. Deskribapen orokor hori izango da eragile gakoek hobekuntzak egiteko proposamenak diseinatzeko oinarria, aurreko zikloetan egin bezala. Sustapen-ekintzaren deskribapena. Azterketa eta orientazioa egiteko ziklo berria ere lau urtekoa izango da, aurreko zikloan diseinatu zen moduan, eta lau txosten egingo dira, urte bakoitzean bana. Hala ere, izaera eta helburuak desberdinak izango dira.

Txosten horien oinarria izango da sektore (publikoa edo pribatua) edo arlo (hezkuntza, kirola, etab.) jakin bateko eragile sustatzaile adierazgarriek bultzatutako ekintza deskribatzea. **“Sektoreko deskribapen-txostena”** da. Zikloko urte bakoitzean, zikloa osatzen duten sektore edo arlo espezifiko bateko eragile mota bati eskainita egongo da, sustapen-neurriak bultzatzeko eragile gakoak baitira, aurreko zikloan ikusi den moduan. Hauek izango dira eragile mota horiek: erkidegoko, lurraldeetako eta tokiko administrazio publikoak, enpresak, banku-fundazioak eta hezkuntzaren eta kirolaren arloko erakundeak.

Zikloa osatzen duten sektoreko lau deskribapen-txostenek sustapen-ekintza osoaren irudi bateratua lortzeko aukera ematen dute. Txosten horiek atal gehigarriak izango lituzkete zikloaren hasieran eta amaieran, jarraian adierazten den moduan:

- **Proposamen-txostena.** Bi elementu ditu: (a) orientazioak, eta EHSSko erakundeek eta sareek eta eragile sustatzaileek orientazio horiekin lotuta identifikatutakoak, behar bezala lehenetsita; (b) aurreko zikloko proposamen-txostenean adierazitako orientazioei eta jarduketari dagokienez izandako aurrerapausoen berrikuspina eta ebaluazio kualitatiboa.
- **Alderaketa-txostena:** itxi den zikloko azterketaren-dimentsioak (neurri motak, lurraldearen eta erakunde onuradunen arabeko banaketa, eragileen pisua...) ziklo honetako edo aurrekoetako elementu horiekin kualitatiboki kontrastatzeko, eta, hala, sustapen-ekintzaren eraldaketa eta balizko indar- edo joera-lerroak identifikatzeko aukera ematen du.

Lau txostenek sustapen-ekintza osoaren irudi bateratua lortzeko aukera ematen dute. Zikloa honela finkatu da:



A. Sektoreko deskribapen- eta proposamen-txostena (1 urte-2024): zikloa zabaltzen duen txostena da eta txostena egin aurreko urtean EAEko foru- eta erkidego-administrazio publikoek bultzatutako sustapen-ekintzak deskribatzea eta orientazioak eta hobetzeko proposamenak adieraztea da bere helburu nagusia. Dokumentu honetan agertzen den txostena da.

B. Tarteko sektoreko deskribapen-txostenak (2. eta 3. urteak - 2025 eta 2026): sektore pribatuak (enpresak eta banku-fundazioak) eta EAEko tokiko administrazioak bultzatutako sustapen-ekintzen deskribapena, hurrenez hurren.

C. Sektoreko deskribapen- eta alderaketa-txostena (4. urtea - 2027): zikloa ixteko txostena, eduki hauekin: (a) hezkuntza-arloko erakunde publikoek eta pribatuek (ikastetxeak², elkarteak eta federazioak, etab.) eta kirolaren arloko erakundeek (kirol-taldeak, federazioak, fundazioak, etab.) sustatutako ekintzen sektoreko deskribapen-txostena; (b) ziklo

osoko sustapen-ekintza guztien deskribapena; eta (c) dimentsioak eta aldagaiak (eragileak, neurriak, lurraldeak eta erakunde onuradunak) eta izandako aurrerapenak aurreko zikloarekin alderatzea, aurreko zikloan identifikatutako sustapen-sistemaren hobekuntzaren orientazioei eta proposamenei dagokienez.

Txostenaren atalak

Horago aipatu den moduan, 2024-2027 ziklo berriaren baitan, aldaketa metodologiko bat planteatzen da sustapen-ekintza modu orokorragoan ulertzeko. Ikuspegi horrek neurrien metaketa kuantitatiboaren gaineko azterketa kualitatiboa lehenesten du eta joerak eta eragile gakoak identifikatzeko aukera ematen du. Hortaz, txosten bakoitza aurreko zikloan identifikatutako eragile gako horiek bultzatutako sustapen ekintzan kontzentratzen da. Eragile horietako bat sektore publikoa da, sustatzen dituen neurriek duten pisuarengatik eta horietako batzuk duten garrantzi estrategikaorengatik. Hain zuzen ere, aipatu dugun moduan, aurtengo txostena Euskadiko administrazio publikoek bultzatutako sustapen-ekintzan dago oinarrituta: EAEko administrazio orokorra eta Hiru Lurralde Historikoetako Foru Administrazioak (zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak eta sektore publikoko fundazioak barne)³.

Lehen zikloan hasitako (2020) EAEko administrazio publikoek sustatutako ekintzak identifikatzeko eta sistematizatzeko lanarekin jarraitzen du txosten honek. Horri esker, ziklo hau amaitzean, sektore publikoak bultzatutako ekintza aurreko zikloarekin alderatu ahal izango da, eta sustapen-ekintzako aldaketak eta joerak identifikatu ahal izango dira.

Sektore publikoak bultzatutako neurriak identifikatzeko garaian irizpide hauek jarraitu dira:

- **Lurraldeen arteko oreka:** txostenak hiru Lurralde Historikoei eskaintzen dien arreta orekatua izatea, eta oreka hori administrazio publikoek sustatutako neurrien banaketan islatzea, lurraldeek EAE osoan duten pisuaren arabera.

²Lehen Hezkuntzako,, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako edo goi mailako irakaskuntza zentro publiko edo pribatuak.

³ EAEko tokiko administrazioak sustatutako ekintza ziklo berri honetako hirugarren txostenean jorratuko da (2026).

- **Eragileen dibertsitatea:** identifikatutako neurriek administrazio publikoa osatzen duten eragileen dibertsitateari erreferentzia egitea, bai sustapen-ekintzaren zeharkakotasunagatik (hirugarren sektore soziala hainbat modutara sustatzen duten arloak/sailak: gizarte-politikak, hezkuntza, etxebizitza, enplegua, etab.), bai erakunde publikoak egiten dituen erreformen barietateagatik (administrazioaren sailak, baina baita enpresak eta organismo publikoak ere).

Foru-administrazioek eta erkidegokoek bultzatutako sustapen-neurriei buruz jasotako informazioa txosten honen **deskribapen-atalean** dago jasota. Atal horretan, aurrekoetan bezala, hainbat alderdi hartzen dira kontuan, hala nola sustapen-neurriak bultzatzen dituzten eragileen ezaugarriak (kategoriak, mobilizatzen dituzten baliabide motak); inplikaturako baliabideen mobilizazioa (ekonomikoak, giza baliabideak, sozialak edo materialak); eragina duten lurraldea; horiek bultzatzeko zereginean emandako lankidetzak; eta, azkenik, jarduera esparru nagusiaren arabera hartzaileak diren EHSSko erakundeak eta sareak.

Bestalde, gorago deskribatutako ziklo berrian aurreikusten den moduan, txostenak **proposamen-atal** bat du eta bertan jasotzen dira orientazio estrategikoak eta orientazio bakoitzaren jarduketa espezifikoak. Aurreko zikloan (2020-2023) identifikatutako sustapen-ekintzaren eta bertan jasotako orientazioen baloraziotik abiatuta egin da hori.

Kokatzea

Sustapen-neurriaren definizioa

Hemen jarraipena ematen zaio [sustapen-neurrien lehen txostenean](#) (2020) ezarritako definizioari. Honela definitzen zuen sustapen-neurria: “EHSS osatzen duten **erakunde edo sareak garatzera eta hobetzera bideratutako** eta **erakunde eta sare horietatik kanpoko eragileek egindako edo bultzatutako** edozein **ekintza zehatzek** (modu operatiboan definituta) eta horretarako **baliabideak esleitura** dituenak (taldeak, aurrekontua...); edonola ere horiek diseinuan, garapenean eta/edo ebaluazioan parte har dezakete” (8. or.).

Lehen txosten horretan, gainera, argitzen zen sustapen-neurriak izan zitezkeela “EHSSko erakundeen eta sareen gaitasunak edo baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak...) modu argian eta zuzenean indartzen dituzten sektore arteko lankidetzak-ekintzak; adibidez, enpresek EHSSko erakundeei hedatutako boluntariotza korporatiboa, edo kausadun marketina”. Kontrara, ezingo dira sustapen-neurri gisa hartu “EHSSko erakundeak eta sareak sustatzea (jasangarritasuna, garapena, hobekuntza...) ez den beste helburu batzuekin hirugarrenen sustatutako jarduketak, indartzea terminoaren definizioa zabala den arren (esaterako, koherentzia bezalako alderdiak barne hartzen ditu)”.

Sustapen-neurrien sailkapena

Gainera, txosten honek identifikatutako neurrien sailkapenari eusten dio, lehenengo txostenean ezarritako kategorizazioaren arabera. Txostenean 15 mota aipatzen ziren:

- 1. EHSS EZAGUTZEA ETA AITORTZEA:** EHSSko erakundeen eta sareen lana, jarduera, ibilbidea, etab. ezagutzera ematea eta aitortzea helburu duten jarduerak.
- 2. ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA INDARTZEA:** hainbat bideren eta kudeaketa hobetzaileen bidez erakundeak eta sareak indartzea helburu duten jarduerak.
- 3. AZPIEGITURAK:** EHSSko erakundeei eta sareei azpiegiturak eskuratzea edo haiek eraikitzea, berritzea edo modernizatzea erraztera bideratutako jarduerak.
- 4. FISKALITATEA:** EHSSko erakundeei zuzendutako onura fiskalak edo EHSSko erakundeei opari, dohaintza eta ekarpenak egiteagatik hirugarrenek dituzten pizgarri fiskalak arautzen dituen araudi edo ordenantza fiskalean jasotako jarduerak.

- 5. FINANTZAKETA:** EHSSko erakunde eta sareen jarduera propioa (erantzukizun publikoko zorroetan jasota ez dauden zerbitzuak) eta kudeaketarako, prestakuntzarako... beste laguntza batzuk finantzatzera bideratutako jarduerak.
- 6. SUSTAPENEO ESTRATEGIA ESPEZIFIKOAK:** Sektore publikoaren sustapen-estrategia espezifikoak eta beste ekintza batzuk
- 7. BOLUNTARIOTZA ETA ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA:** emakumeak, gazteak, adinekoak eta herritarrak bazkide edo boluntario (boluntariotza soziala) gisa sustatzeko tresnak (agentziak) eta ekintzak.
- 8. FUNTZIOEN OREKA:** erakundeek eta sareek zerbitzuak ematearekin zerikusirik ez duten funtzioak garatzea ahalbidetzen duten ekintzak: beharrak hautematea, ikerketa, berrikuntza, sentsibilizazioa, salaketa, eskubideen sustapena, bata besteari laguntzea...
- 9. KOHERENTZIA:** erakundeetan honakoak sustatzera bideratutako ekintzak: berdintasuna, kontziliazioa, aniztasuna, integrazioa, euskararen erabileraren normalizazioa eta, orokorrean, sektorearen balioak adieraztea eta pertsonen eskubideak erabiltzea.
- 10. BETEBEHARRAK BETETZEA:** erakundeak egungo arau-aldaketetara edo aurreikusita dauden arau-aldaketetara egokitzeko laguntza.
- 11. BALIO ERANTSIA INDARTZEA:** erakundeak bereizten dituzten eta erantzukizun publikoko zerbitzuen eskaintzari balioa eransten dioten alderdiak garatzeko laguntza.
- 12. SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 13. SEKTORE PUBLIKOAREKIN LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 14. BESTE SEKTORE, ERAKUNDE ETA MUGIMENDU SOZIAL BATZUEKIN LANKIDETZA:** EHSSko erakundeek, eta sareen eta sektore publikoaz gaindiko beste sektore batzuen arteko elkarlana errazten edo sustatzen duten jarduerak.
- 15. SUSTAPEN NEURRIETARAKO SARBIDEA:** erakundeei (bereziki, elkarte txiki eta ertainei) laguntzeko egiturak, sustapen-neurrietarako sarbidea errazteko.

Metodologia

Eragileak eta neurriak identifikatzeko metodologia

Jarraian, eragileak eta beraiek sustatutako sustapen-neurriak identifikatu eta erregistratzeko garatutako prozesuak eta metodoak deskribatuko ditugu, proposatutako atalean txertatutakoak.

Eragileen identifikazioari dagokionez, lehen txostenean egindako identifikazioa eta lehenespena izan da abiapuntua. EAEko administrazio orokorrarentzako eta foru-administrazioarentzako sarrera mota hauek jaso ziren bertan:

EAEko SEKTORE PUBLIKOA			
EAEko Foru Administrazioa	Arabako Foru Administrazioa	Bizkaiko Foru Administrazioa	Gipuzkoako Foru Administrazioa
Eusko Jaurlaritza Erakunde autonomoak Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Merkataritza-sozietateak Sektore publikoko fundazioak Partzuergoak Beste instituzio eta erakunde publiko batzuk ⁴	Arabako Foru Aldundia Erakunde publikoak Beste instituzio batzuk	Bizkaiko Foru Aldundia Foru-erakunde autonomoak Foru-erakunde publiko enpresarialak Merkataritzako foru-sozietateak Foru-fundazioak Beste instituzio batzuk	Gipuzkoako Foru Aldundia Merkataritzako sozietate publikoak Partaidetzapeko merkataritzako sozietateak Fundazioak Partzuergoak Beste instituzio batzuk

Ondoren, web-bilaketa bat egin zen EAEko eta hiru Lurralde Historikoetako arlo publikoko eragileen lagin baten barruan, ezarritako aldi bultzatutako neurriak identifikatzeko. Bilaketa hori Euskadiko hirugarren sektore sozialarekin harremana duten gobernu eta erakundeetako (organismo publikoak) sailetan zentratu zen batik bat. Horretarako, elementu hauek berrikusi ziren: dirulaguntzen plan estrategikoak; hainbat administrazioetako gobernu irekiaren⁵ webguneak, administrazioen eta EHSSko erakundeen arteko dirulaguntzak, subentzioak, hitzarmenak, kontratuak eta abar identifikatzeko; administrazio publikoen komunikazio-orrialdeak eta EHSSko sare nagusietako batzuen jardura-memoriak.

Gerora, eskuratutako **datuak iragazi** ziren, errepikapenak ezabatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta neurriak deskribatutako kategorizazio-metodoen bidez sailkatu ziren. Jasotako informazioa SPSS estatistikak aztertzeko programarekin tratatu zen, aurreko urteetan bezala.

Sustapen-neurrien azterketaren dimentsioak

Aurreko txostenetan bezala, sustapen-ekintzen deskribapena egiteko lau dimentsiotan oinarritu gara, zeinak bat datozen neurri bakoitzaren gainean emandako informazioarekin:

1. **KATEGORIAK:** sustapen-ekintzen **banaketa** zehazten du, neurriak sailkatzeko erabili diren **kategorien eta azpitaldeen arabera**⁶.
2. **ERAGILEAK:** eragileek sustapen-ekintzetan **duten pisua** zehazten du.
3. **LURRALDEAK:** sustapen-ekintzak **lurraldeen artean nola banatuta dauden** zehazten du, eta arreta berezia jartzen die hiru Lurralde Historikoei.

⁴ Unibertsitateak eta irakaskuntza-zentro publikoak kanpoan utzi dira, espazio espezifikoak izango baitute ziklo honetako laugarren txostenean (2027).

⁵ Open Data Euskadi, Araba Irekia, Gipuzkoa Irekia, Gardentasuna Bizkaia.

⁶ Informazio gehiagorako kontsultatu koadroa, bertan ageri da sustapen-neurrien kontzeptualizazioa eta sailkapena.

4. **HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEAK:** sustapen-ekintzak EHSSko erakundeen artean nola **banatzen** diren zehazten du, erakunde horien ezaugarri anitzei arreta jarrita.

Identifikatutako **sustapen-neurriak** kategoria eta moten arabera erregistratu dira. Neurri bat, dituen ezaugarriengatik, kategoria batean baino gehiagotan sailka daitekeen ezohiko kasuetan, neurriaren helburuarekin ongien bat datorren kategorian erregistratu dugu, kasu bakoitzean.

Dagokion foru-administrazioa edo erkidego-administrazioa eta lurraldea erregistratu da **identifikatutako eragile publiko** bakoitzarentzat.

Neurriei dagokien lurraldea erregistratzeko, neurri horiek **zuzenduta dauden edo eragina duten lurralde eremu administratiboa** (tokikoa, forala, autonomikoa...) hartu dugu kontuan Normalean bat etortzen da neurria bultzatzen duen eragilearen lurraldearekin, baina hala gertatzen ez denean⁷, irizpide bera mantentzen da, hau da, neurriak eragina duen lurraldean erregistratzen da, eta ez bultzatzen duen eragilearen lurraldean. Honako hau da administrazio mailako lurralde eremuaren tipifikazioa: tokikoa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Euskadi, Estatua, Europar Batasuna.

Lurraldeen araberrako sustapen-ekintzen datuak honela erakusten dira:

- a. **Lurralde eremuen** arabera. Lurralde eremu administratibo bakoitzaren datuak eskaintzen dira, **sustapen-ekintzak eremu horietan nola banatzen diren ezagutzeko helburuz**.
- b. **Lurralde Historikoen** arabera: espezifikoki lurralde historiko bakoitzean eragina duten neurrien datuak bakarrik eskaintzen dira, **haietako bakoitzean sustapen-ekintzak identifikatzeko** helburuarekin. Kasu hauetan, dagokion lurraldeko udalek eta mankomunitateek bultzatutako neurriak batzen dira lurralde bakoitzera.⁸

EHSSko erakunde hartzaileen araberrako sustapen-ekintzak honako aldagaien arabera erregistratu ditugu:

- erakundearen **izaera juridikoa**;
- **neurria** (diru-sarreraren bolumenaren arabera);
- jarduera **arloa**.

⁷ Adibidez, EAEko Administrazio Orokorrek bultzatzen dituen sustapen-neurriak, ezaugarri hauek dituztenak: (a) Lurralde Historiko batean dute eragina edo aplikatzen dira, espezifikoki; (b) jarduera Lurralde Historiko bakar batean garatzen duten EHSSko erakundeei zuzenduta daude; (c) jarduera Lurralde Historiko batean baino gehiagotan garatzen duten baina lurralde bakar batean garatzen diren proiektuak, programak, jarduerak, etab. babesteko helburua duten EHSSko erakundeei zuzenduta daude.

⁸ Batuketatik kanpo utzi ditugu EAEko (Lurralde Historiko bateko EHSSko erakundeei, espezifikoki, zuzentzen badira salbu), Estatuko eta Europar Batasuneko Administrazio Orokorrek bultzatutako neurriak, baita azkeneko bi lurralde eremu horietako eragile pribatuek bultzatutako neurriak ere.

Laburtuz, txosten honetan identifikatutako neurri bakoitzaren kasuan, honako informazio hau dugu⁹:

Sustapen-neurriaren izena	
Kategoria	Kategoriaren izena
	Neurri mota
Eragile bultzatzailea	Eragile bultzatzailearen sektorea
	Eragile bultzatzaile mota
Lurraldea	Neurria zuzentzen den edo eragina duen lurralde eremu administratibo zehatza
Erakunde hartzaileak	Erakundeen izaera juridikoa
	Erakundeen tamaina
	Erakundeen jarduera esparrua

⁹ Aldagai hauen (izaera juridikoa, maila, arloa, etab.) gaineko informaziorik ez dagoenean edo ondorioztatu ezin denean, “zehaztu gabe” kontzeptuarekin erregistratzen da. Neurriak edozein izaera juridikotako, jarduera arlotako eta abarretako erakundeei zuzenduta daudenean, “zehaztugabea” izenarekin erregistratzen dira.

“Tamaina” aldagaien kasuan, “Elkarte Txiki eta Ertainak” tipologia (haien diru-sarreraren bolumenaren arabera txikiak edo ertainak diren erakundeak -hau da, 300.000 € baino gutxiagoko sarrera-bolumena dutenak) erregistratu dugu, identifikatutako neurria tamaina horretako erakundeei zuzentzen bazaie, berariaz edo espezifikoki.

Orientabideak eta hobetzeko proposamenak identifikatzeko metodologia

Sustapen-neurrien lehen txostenaren proposamen-atala egiteko, neurri horien aurretiazko identifikazioan EHSSri laguntzeko funtsezko eragile gisa hauteman ziren eragileek mintegi batean eta hainbat elkarrizketatan hartu zuten parte. Funtsezkotzat hartu ziren bai sustatzen zituzten neurrien kopuruarengatik, bai haien lurralde-hedapenagatik, sektorearentzako garrantzi operatibo eta estrategikoagatik edo lurraldearekin duten harreman historikoagatik. **EAEko administrazio publikoen** hiru mailek (orokorra, lurraldeetakoa eta tokikoa) eta EAEko **banku-fundazioek** osatu zuten eragileen taldea.

Sustapen-neurrien bigarren txostena enpresa-sektorearen monografikoa izan zen eta agerian utzi zuen sektore hori EHSSri laguntzeko garrantzitsua dela, 600 **enpresa** baino gehiagok neurri asko eta askotarikoak sustatu dituztelako, baina horrez gain, harreman estua eta gero eta handiagoa dagoela bien artean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren arau esparruan¹⁰ eta estrategikoan¹¹ nabarmentzen den moduan.

Hortaz, aurreko zikloan egindako txostenek erakusten duten moduan, erakunde publiko eta pribatu horiek guztiak erreferentziazko eragileak dira, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartzeko eta iraunarazteko egiten duten ekarpenarengatik.

Aurreko proposamen-txostenean, mintegia egin aurretik, elkarrizketa sakonak egin ziren hainbat eragilerekin sustapen-ekintzaren gaineko diagnostikoa lortzeko eta aurretiazko orientazioak identifikatzeko. Kasu honetan, berriz, mintegia egin da zuzenean eragile horiekin eta lehen txosten horretatik ateratako diagnostikoa eta orientazioak hartu dira erreferentziazat.

Eragile mota hauetako 24 pertsonak hartu dute parte mintegi horretan:

- 1) EAEko administrazio publiko orokorrak eta foru-administrazioak.
- 2) Banku-fundazioak.
- 3) Enpresa-taldeak.
- 4) Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sareak¹²

¹⁰ EHSSLren legeak bi sektoreek beharrei eta erronka sozialei erantzuteko eragile gako gisa duten garrantzia azpimarratzen du. Horregatik, lege horretan jasotako helburuen artean, 1. artikulua dio xedea “erakundearen kooperazioa eta lankidetzari, beren artekoa eta sektore publikoarekin eta enprekin dutena, sustatzea” dela. 24. artikulua osoa Euskadiko administrazio publikoen sustapenari eskainita dago, enpresen sektorearen eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzari.

¹¹ Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren 4. helburua, lege-esparru honekin bat etorritik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren eta Euskadiko sektore publikokoak ez diren beste eragile batzuen arteko lankidetzari eskainita dago, besteak beste, EHSSren eta enpresen artean lankidetzari-ekimenak sustatzeko.

¹² Erakunde eta pertsona parte-hartzaileen zerrenda osoa txosten honen 1. eranskinean ikus daiteke.

Mintegia bi unetan egin zen; bata aurrez aurre eta bestea birtualki. Lehenengoa 2024ko maiatzean egin zen eta hiru bloketan egituratu zen¹³. Lehenengoa, aurkezpena izan zen eta 2020-2023 zikloan identifikatutako sustapen-ekintza sistematizatuaren diagnostikoa eta lehenengo txostenean (2020) proposatutako hobetzeko orientazioak partekatu ziren.

Hurrengo bi blokeak parte-hartzaile guztien arteko taldeko lanak izan ziren. Lehenik eta behin, aurkeztutako diagnostikoaren balorazio orokorra egin zen eta, gero, lehen txostenean jasotako proposamenen eta jarduketan gainean zikloan zehar egindako aurrerapausoak eta orientazioak berrikusi eta ebaluatu ziren. Ondoren, mintegiaren helburu nagusia landu zen; sustapen-ekintza hobetzeko orientazio berriak identifikatzea.

Mintegiaren bigarren zatia birtuala izan zen eta aurrez aurreko zatian jasotako material guztia berregin eta dokumentu batean jarri ondoren, eragile gakoek tresna digital bat diseinatu eta sortu zuten, lantaldeetan aipatutako hobetzeko proposamenak lehenesteko.

¹³ Mintegiko programa txosten honen 2. eranskinean ikus daiteke.



EAEko foru administrazioak eta administrazio autonomikoak 2023an bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa


Erkidegoko eta lurraldeetako sektore publikoko zer eragilek bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?

Sektore publikoak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sustapenean protagonista gisa duen garrantzia egiaztatu ostean, deskribapen-txosten honek EAEko Administrazio Orokorrak eta hiru lurraldeetako Foru Administrazioek bultzatutako sustapen-ekintzak aztertuko ditu, zuzenbide pribatuko erakunde publikoenak, sozietate publikoenak eta sektore publikoko fundazioenak barne. Orain arte, administrazio horiek bultzatutako sustapen-neurriak identifikatu zituzten aurreko txostenek, baina dokumentu honen xedea sustapen-eragile gako gisa duten rol estrategikoan sakontzea da, haien ezaugarriak, joerak eta EHSSren sustapen-ekintzari egiten dioten ekarpena definitzeko lankidetzaz-aukerak aztertuz.

Eragile sustatzaileak, haien jarduera sektorearen arabera

Txosten honetan EAEko administrazio publiko nagusiek bultzatutako ekintzak nabarmentzen dira, eragile gakoak baitira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren (EHSS) garapenean. Identifikatutako eragileen artean, foru-administrazioenak dira erkidegoko eta lurraldeetako sektore publikoak bultzatutako neurri guztien % 63,6, eta EAEko Administrazio Orokorra da arlo horretan liderra, % 36,4rekin.


1. grafikoa. Eragile sustatzaileak, haien jarduera sektorearen arabera. %. 2023.



Eragile sustatzaileak, egoitza sozialaren arabera

Sustapen-eragileak ageri dira jarraian, EAEko hiru lurralde historikoen artean eta Euskadi osoan banatuta. Gipuzkoa eta Bizkaia liderrak dira arlo horretan, guztizkoaren % 27,3rekin eta distantzia jakin batera dago Araba, % 9,1ekin. Gainera, Euskadi osoko irismena duten neurriak identifikatu dira, % 36,4.

2. grafikoa. Erkidego- eta foru-eragileak lurralde historikoaren arabera. %. 2023.




Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?

Identifikatutako neurriak kategorien arabera

2023 aldirian, eragile sustatzaileek, publiko autonomikoak eta foru-administrazioak, bultzatutako **358 neurri** identifikatu dira eta hasiera batean aurrez ikusitako 15 kategoriatatik 12tan banatu ditugu. Sustapen-ekintzak, oro har, EHSSko erakundeek eta sareek jardueren **finantzaketan** oinarritzen dira (567 neurri); 2023an identifikatutako 10 neurritik ia 7 dira mota horretakoak.

3. grafikoa. Sustapen-neurriak, kategorien arabera. %. 2023.



Dena den, EHSSren finantzaketarekin zerikusirik ez duten sustapeneko 119 neurri daude guztira. Horiek guztiek, finantzaketa-neurrien garrantzi kuantitatiboaz harago joanda, garrantzi kualitatibo handia dute. Gainerako kategoriatan banaketa ezberdina dute horiek:

- 28 neurri (% 7,8) EHSSko erakundeek **fiskalitate** arloan eskaintzen dituzte onurak. Kasu askotan, horiek guztiak EHSSko erakundeei zuzendutako zerga-onurak arautzen dituen ordenantza edo araudi fiskalean jasotako ekintzekin lotuta daude.
- 20 neurriren helburua (% 5,6) EHSSren **ezagutza eta aitortza** lortzea da; hau da, EHSSko erakunde eta sareen lana, jarduera, ibilbidea eta abarrak ezagutaraztea edo horiei aitortza eskaintzea.
- 18 neurri (% 5,0) **sektore barruko** lankidetzak errazten dute EHSSko erakundeetan. Kasu gehienetan, lankidetzak horizontalak eta sarekoak dira bultzatutako bideratutako ekintzak.

- d. 16 neurri (% 4,5) bat datoz **boluntariotzaren eta asoziazionismoaren sustapenarekin**, hein handi batean EHSSko erakunde eta sareetako enpresa-erakundeetan lanean ari diren pertsonen boluntariotza korporatiboko jarduerekin lotuta.
- e. Azkenik, ordezkaritza eskasagoarekin baina **koherentzia indartzera bideratuta** daude 15 neurri; **azpiegituren** hornikuntzan jarduten dute 7k eta **funtzioen oreka** bermatzen dute beste 6k.

Finantzaketa-neurriek identifikatutako sustapen-neurri guztien artean duten garrantziak **deskribapen espezifiko** bat behar du, jarraian eskainiko duguna. Identifikatutako finantzaketa-neurri gehienak (% 81,7) bat datoz *laguntzekin eta diru-laguntzekin* (245). Azken horiek ez ezik, EHSSko erakundeei zuzkidura ekonomikoa emateko beste formula batzuk ere sartzen dira hemen, hala nola dohaintzak, babes- eta mezenasgo-ekintzak, eta abar.

Finantzaketa-neurrien azpikategoriak	Absolutuak	%
Laguntzak eta dirulaguntzak	245	% 81,7
Salbuespen fiskalak.	19	+% 6,3
Desgrabazioak edo zerga-murrizketak.	9	+% 3,0
Sariak (aitortza).	8	% 2,7
Beste batzuk	19	+% 6,3
Guztira	300	% 100

Gainerako finantzazio-neurriak gutxiago diren arren, azpikategoria espezifikoetan daude kontzentratuta: zerga-salbuespenak % 6,3 dira (19 neurri, herritarren inplikazioa sustatuz finantza-produktuen bidez; zergen kenkariak edo murrizketak % 3,0 (9 neurri), zerga-pizgarri zuzenak eskainiz; eta sariak (aitortza) % 2,7 (8 neurri), jardunbide egokiak sustatuz eta ikusaraziz eskudirutan egindako ekarpenen bitartez. Azpikategoria horiek dirulaguntzen eta subentzioen nagusitasuna osatzen dute.

Identifikatutako neurriak moten arabera

EHSSLren 24.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian erakunde sustatzaileek mobilizatzen dituzten baliabide-moten arabera identifikatutako neurrien banaketa jasoko dugu. Hala, lau mota nagusitan sailkatu ditugu neurriak:

- Baliabide ekonomikoak:** Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde eta sare hartzailen egitasmoak garatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten sustapen-ekintzak (jarduera, proiektu, programa... bat finantzatzeko edo gastuak ordaintzeko).
- Giza baliabideak:** langileak mobilizatzen dituzten sustapen ekintzak dira, eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sare hartzailen zerbitzura jartzen dituzte borondatez jardueraren bat garatzeko edo proiektu edo programaren bat sustatzeko beraien esperientzia, ezagutza profesionala edo denbora.

3. **Baliabide sozialak:** entitate edo erakunde eta sare hartzailekoak ez diren beste erakunde eta/edo pertsonen mobilizazioa eta/edo parte-hartzea dakarten sustapen-ekintzak eta hainbat modutara azken hartzaile horiei laguntzen dietenak.
4. **Zerbitzuak, baliabide teknikoak eta/edo materialak:** EHSSko erakunde eta sare hartzaileentzako egun dauden zerbitzuak edo modu espezifikoan egokitutakoak eskaintzeko eta/edo baliabide teknikoak eta/edo materialak mobilizatzeko sustapen-ekintzak.


Identifikatutako neurriei lotuta eskuragarri dagoen informazioaren arabera, identifikatutako sustapen-ekintzen % 98,2k (789 neurri) aipatutako baliabide bat edo batzuk mobilizatu dituzte, banaketa honen arabera:

- a. 337 neurrik eragile sustatzaileen **baliabide ekonomikoen** mobilizazioa dakarte eta horiek dira ohikoenak; izan ere, informazioa jaso dugun neurrien hiru laurden (% 94,1) dira era horretakoak. Ehunekoa bat dator goian ageri den neurrien kategorizazioan adierazitakoarekin, nahiz eta garrantzi nabarmen txikiagoa duen, kategorizazioan neurriaren asmoa hartzen delako kontuan (jarduera finantzatzea), eta sailkapenean, aldiz, helburu horretarako beharrezkoak diren baliabideak.
- b. 17 neurritan **zerbitzuen** eskaintza edo enpresen **baliabide tekniko eta/edo materialen** mobilizazioa barne hartzen da, eta hori da zabalduen dagoen bigarren mota (% 4,7).
- c. **Erakunde sustatzailearen kanpoko pertsonak edo elkarteak** barne hartzen dituzten sustapen-neurriak dira gutxien identifikatu ditugunak, 14 neurriekin (% 3,9). Identifikatutako mota horietako kasuen zati handi batean, neurriek erakunde sustatzaileetako bezeroen edo hartzaileen parte-hartzea barne hartzen dute, hainbat motatakoa: baliabide ekonomikoen edo materialen hornikuntzan parte-hartze zuzena dute zerbitzuen (finantza-zerbitzu espezifikoaren bidezko dohaintza, adibidez), kanpainen (supermerkatu-kateetako bezeroek elikagaiak dohaintzan ematea Elikadura Bankuen kanpainen, esaterako), edo programen bitartez (bezeroek boluntario gisa parte hartzea, esaterako), besteak beste.
- d. 5 neurrik enpresa-sektoreko erakundeek eurek eskaintako **giza baliabideak** dituzte, eta horiek dira zabalduen dauden hirugarren neurri-motak (% 1,4), informazio hori dugun kasuetarako.

4. *grafikoa.* Sustapen-neurriak, baliabide moten arabera. Erantzun aniztuna %. 2023.

Enpresatik kanpoko
pertsonen/pertsona-
taldeen parte-hartzea;
% 3,9

edo baliabide
teknikoen eta/edo
materialen
mobilizazioa; % 4,7




Zer lurraldetan dute eragina?

EHSSren sustapen-ekintzak inpaktu adierazgarria du EAEren lurralde-eremu guztietan eta kontzentrazio argia du **hiru lurralde historikoetan, identifikatutako neurrien % 67 baita guztira. Gipuzkoa** da neurri gehien dituen lurraldea, 90 neurriekin guztira (% 24,9). Atzetik daude **Bizkaia**, 78 neurriekin (% 21,6) eta **Araba** 74 neurriekin (% 20,5). Azken hori da ekintzen bolumenik txikiena duen lurraldea, baina proportzio adierazgarria du EAE osoan.

Bestalde, **Euskadiko** eremuak erkidegoko irismena duten neurriak hartzen ditu barne eta 119 ekintza erregistratu dira (% 33,3). Datu horiek argi erakusten dute EHSSren sustapen-ekintza lurraldera bideratua dagoela, eta pisu handia duela erkidegoko eta Lurralde Historikoetako testuinguruan.


5. grafikoa. Sustapen-neurriak, eragina duten lurraldearen arabera. %. 2023.



Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan

Identifikatutako neurri gehienak esku hartzen duten erakunde bakoitzaren banakako ekimenetik sortu diren arren, kopuru txiki bat enpresa sustatzaileak eragile batekin baino gehiagorekin antolatutako lankidetzaren bitartez ezarri edo jarri da abian. Horri dagokionez, 2 neurri lankidetzaren publiko-sozialekoak dira, hau da, administrazioaren eta EHSSko erakunde bakoitzaren arteko elkarlanaren ondorioz egindakoak. Bestalde, neurri 1 sustatu da sektore barruko lankidetzaren bitartez, hau da, Hirugarren Sektore Sozialako erakunde bakoitzaren artean.

6. grafikoa. Sustapen-neurriak, lankidetzaren motaren arabera. 2023.




Nori zuzenduta daude?

Sustapen-ekintzak erakunde eta sare mota oso anitzetara zuzenduta egoten dira. Jarraian, sustapen-ekintza hau jasoko duten erakunde bakoitzaren emaitzak azaltzen dira, haien forma juridikoaren, tamainaren eta jardueraren esparru nagusiaren arabera. Garrantzitsua da azpimarratzea, nahiz eta identifikatutako sustapen-neurriak arakatu eta horien jarraipena egin dugun, erakunde onuradunak identifikatzeko lana zaila izan dela (are gehiago administrazio publikoen kasuan), batzuetan ez baita laguntza horien onuradun izan diren

erakundeen informazioa eskaintzen. Horregatik, gaur egun, ez dugu erregistratutako neurrien % 45en (gutxi gorabehera) onuradunak izan diren erakundeei buruzko informaziorik.

Erakunde onuraduna eta horren forma juridikoa ezagutzen dugun 197 neurri horietatik, 10 neurritatik 7 elkarteei zuzenduta daude (% 69, 136 neurri). Baina elkarten forma juridikoak sektorean duen proportzioarekin alderatzen badugu, proportzio hori elkarteei zuzendutako neurrien nagusitasunarekin ez datorrela bat ikusiko dugu. 2024ko Liburu Zuriak biltzen dituen datuen arabera, sektorearen % 90,9 elkarteek osatzen dute eta fundazioena da sektorean bigarren figura juridiko ohikoena (% 6). Hitz gutxitan esanda, sektorean duten proportzioarekin lotuta, fundazioak dira sustapen-neurri gehien jaso dituztenak; zehazki, neurri horien % 16,2 (32 neurri).

7. grafikoa. Sustapen-neurriak, erakunde hartzaileen arabera. %. 2023.



Gainerako neurriak beste figura juridiko batzuen artean banatu dira (% 14,7, 29 neurri): ekimen sozialeko kooperatibak, kongregazio erlijiosoa eta abar.

Jarraian, sustapen-neurrien banaketa eguneratua egingo da, erakunde onuradunen jarduketa-arloaren arabera. Gizarte Zerbitzuen arloa da nagusi, neurri guztien % 44,7, hau da 88 neurri, arlo horretakoak baitira. Horrek erakusten du pisu zentrala duela sustapen-ekintzan. Atzetik dago soziala-zeharkakoa arloa, % 25,4 iristen baita 50 neurriekin. Sektorearen esku-hartze globalean duen garrantzia islatzen du horrek.

Enplegua eta Garapenerako Lankidetza sailek guztizkoaren % 8,1 partekatzen dute, 16 neurriekin bakoitza, eta lan-munduratzeko arreta eta nazioarteko lankidetza nabarmentzen dira. Bestalde, Osasunaren arloa % 6,1 da 12 neurriekin. Beste batzuk arloaren barruan, berriz, kategoria nagusietan sartzen ez diren ekimenak jasotzen dira eta % 5,1era iristen da, 10 neurriekin. Azkenik, Aisialdia arloak intzidentzia txikiagoa du, % 2,5ekin eta 5 neurriekin.


Arloak	SNT2024	2023ko barometroa
Soziala-zeharkakoa	25,4	37,5
Gizarte-zerbitzuak	44,7	22,2
Garapenerako lankidetzak	8,1	13,6
Aisialdia	2,5	11,6
Osasuna	6,1	9,6
Enplegua	8,1	3,8
Beste batzuk	5,1	1,7

Aurreko datuak **arlo bakoitzeko erakundeek EHSSko erakunde guztiekin alderatuta duten proportzioarekin** konparatzen baditugu (2023ko Barometroa), ikus dezakegu gizarte-zerbitzuen arloko bultzadak gehiegizko garrantzia duela (EHSS osoan duen proportzioa bikoiztu egiten du), eta horren ondorioz, gainerako arloetan lan egiten duten erakundeetara bideratutako sustapen-ekintza sektorean duten proportzioaren azpitik dago. Hori oso nabarmena da, bereziki, Sozial-zeharkako edo Aisialdiko esparruetan; izan ere, sektore horretan duten pisua baino askoz ere ehuneko txikiagoan jasotzen dute laguntza.

Gizarte Zerbitzuen alorretako EHSSan dagokion pisuarekin lotuta babes handiagoa izatea, bai eta gainerako esparruetatik jasotako babes txikiagoa ere, bat dator, ehuneko desberdinekin, 2024an egindako sustapen-neurrien txostenean islatutakoarekin.

